



etxe
pare
EUSKALINSTITUTUA
INSTITUTOVASCO
BASQUEINSTITUTE



1. **Sarrera**

- 1.1. Etxepare Institutua
- 1.2. Jarduera-ildoen eskema
- 1.3. Aurrekontua

2. **Jarduera-ildoak**

- 2.1. Institutua abiaraztea
- 2.2. Euskararen Sustapena eta Zabalkundea
- 2.3. Euskal Kulturaren Sustapena eta Zabalkundea
- 2.4. Eremu birtuala

3. **Etorkizuneko erronkak**



“jalgi hadi mundura”

Facebook Twitter YouTube Canales RSS CONTACTO EN EU

Introduzca la palabra a b

BUSCAR

Home Etxepare Euskera Cultura Noticias Agenda Convocatorias Sala de Prensa Fotografías Etxepare TV Enlaces

Etxepare

¿Quiénes somos?

- Quiénes somos
- Objetivos

Órganos de dirección

- Equipo de dirección
- Consejo de dirección
- Patronato

Áreas

- Área de euskera
- Área de promoción de la cultura

Convenios

Normativa

Contacto

QUIÉNES SOMOS

En 1545, Bernart Etxepare, escribió el libro llamado 'Linguae Vasconum Primitae', el primer libro en lengua vasca. Esta obra prima de la literatura en euskera formulaba un deseo para nuestro idioma:

Heuscara ialqui adi campora (Euskera muéstrate a la calle)

Heuscara ialqui adi plaza (Euskera muéstrate a la plaza)

Heuscara ialqui adi mundura (Euskera muéstrate al mundo)

El Instituto Vasco Etxepare nace para cumplir con ese deseo. Su misión es difundir la lengua y la cultura vascas por todo el mundo.

El Instituto Vasco Etxepare es un embajador de nuestra lengua y cultura en exterior, y promueve la difusión internacional de la lengua vasca (euskera) y de los creadores vascos en todas las disciplinas: desde la literatura hasta las artes escénicas, pasando por el cine, la escultura, la pintura o la música..

Pero, frente al modelo clásico de gran instituto, queremos ser un instituto versátil, que se mueva con agilidad en un mundo interconectado, capaz de aprovechar el poder de las redes y adaptarse a demandas concretas. Desarrollar las expresiones culturales propias y promover el diálogo con las demás culturas es clave para conseguir ese objetivo.

Los vascos vivimos abiertos al mundo, hemos aprendido mucho del exterior y aún podemos aprender mucho más. Pero, como dijo el músico popular del siglo XIX José María Iparagirre, nosotros también tenemos que dar y extender nuestro fruto por el mundo, queremos dar un toque más vasco al mundo, y dotar de un carácter más universal al País Vasco.

Aizpea Goenaga

Directora del Instituto Vasco Etxepare

CANALES RSS CONTACTO PERFIL DEL CONTRATANTE ACCESIBILIDAD MAPA WEB AVISO LEGAL

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Alojamiento ofrecido por:

ibercom

© 2012 Etxepare, Euskal Institutua. Todos los derechos reservados

1. Sarrera

1.1. Etxepare Institutua

Etxepare Institutua, Eusko Legebiltzarraren apirilaren 20ko 3/2007 Legeaz sortua, 2009ko urtarrilaren 9an hasi zen abian. Euskara eta euskal kultura munduan zabaltzea eta sustatzea du helburua; horretarako lehendik Eusko Jurlaritzako zenbait instantziak hizkuntzaren eta kulturaren eremuetan egindako lanak bere gain hartu ditu eta hemendik aurrera bere eginkizunari dagozkion Programak eta jarduerak bideratuko ditu.

Etxepare Institutuaren helburuak hauek dira (Legearen 3. art.):

- Euskararen irakaskuntza, ikaskuntza eta erabilera mundu osoan sustatzea, hizkuntza hau partekatzen duten komunitate guztien ekarpenak errespetatuz.
- Euskal kultura, bere hizkuntza ofizialeko edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldeetan, kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta bermatuz.
- Gure herrialdearen errealitatea euskaraz hitz egiten duten mundu osoko kolektibitateetara eta hainbat herritara hurbiltzea, herri horietan euskal komunitateak dituztelako edo herri horiekiko harreman historiko, kultural edo komertzialen garrantziak hala aholkatzen duelako.
- Euskarak nazioartean onespina lor dezan bultzatu eta sustatzea.
- Bere jarduerak hedatzen eta haien kalitatea hobetzen lagunduko duten behar adina neurri eta ekintza sustatzea.
- Halaber, euskal kulturari buruzko ikerketa sustatzea, bereziki unibertsitate eta goi-mailako ikerketarako erakundeetan

Erakunde berri honek Euskadiren kanporako jardueraren eta hizkuntza eta kultura-politikaren marko orokorrean garatzen du bere jardura, beren xedea euskararen normalizazioa duten erakundeekin lankidetzara eta elkarlan iraunkorrezko harremanak edukitzean ahaleginduko da eta Administrazio publikoekin edo erakunde publiko honek dituen xedeak lortzeko helburua duten bestelako erakunde guztiekin, euskal hizkuntza komunitatea kokatuta dagoen lurraldeetakoekin batez ere, koordinatuko ditu bere jarduerak.

Txosten honek deskribatzen dituen 2009. eta 2010. urteetan Etxepare Euskal Institutuaren oinarriak finkatu dira eta haren jardura abiarazi da. Erakundea definitzeko, hartaz gogoeta egiteko, planak egiteko eta izendatu zaizkion helburuei heltzeko behar adinako egitura bat sortzeko urteak izan dira.

1.2. Jarduera-ildoen eskema

JARDUERA-ILDOAK
Institutua abiaraztea
Euskararen Sustapena eta Zabalkundea
Euskal Kulturaren Sustapena eta Zabalkundea
Eremu birtuala

Etxepare Institutuaren jarduera-ildoak erakunde honen jardura egituratzen den bi alorrei dagozkie; euskararen sustapena eta zabalkundea eta euskal kulturaren sustapena eta zabalkundea. Hala eta guztiz ere, txosten honen gaia diren urteetan Institutua lanean hasi berria zenez, egin den lan gehiena Institutua bera abian jartzera bideratu da, lehenengo jarduera-ildoan islatzen den bezala. Txosten honetan lau garren jardura-ildo bat ere aipatzen da, eremu birtualean egindako lanari dagokiona; aurreko biei dagokienez transbertsala baldin bada ere, bereziki aipatzen da, jardura-ildo honek izango duen garrantzia azpimarratzeko.

1.3. Aurrekontua

Etxepare Institutuaren ustiaketa-aurrekontua milioi bat eurotik gorakoa izan da 2010. urtean; 2009an, berriz, 760.000 €-koa ozta-ozta izan zen. Kultura Sailak finantzatzen du aurrekontu osoa, eta 2010ean gastuaren %15,8 hartzen duen diru-laguntzetarako partida bat ere badu.

Etxepare Institutuaren ustiaketa-aurrekontua, 2009 eta 2010

	2009		2010	
	€	%	€	%
GASTUAK	759.671	100,0	1.085.500	100,0
Langile-gastuak	434.671	57,2	429.000	39,5
Ustiaketa-gastuak	325.000	42,8	485.000	44,7
Diru-laguntzak eta transferentziak			171.500	15,8
SARRERAK	759.671	100,0	1.085.500	100,0
Kultura Sailaren ekarpenak	759.671	100,0	1.085.500	100,0

Etxepare Institutuaren kapital-aurrekontua, 2009 eta 2010

	2009		2010	
	€	%	€	%
INBERTSIOAK	182.000	100,0	219.500	100,0
Inbertsioengatiko ordainketak	182.000	100,0	219.500	100,0
FINANTZAKETA	182.000	100,0	219.500	100,0
Kultura Sailaren ekarpenak	182.000	100,0	219.500	100,0

2. Jarduera-ildoak

2.1. Institutua abiaraztea

Testuingurua. **Kultura-diplomaziaren aldeko apustua**

Etxepare Euskal Institutua sortuz, gure gizartearen kultura-adierazpenak zabaltzeko eta beste kultura-eragile batzuekiko, pertsonetikiko eta herriekiko elkarrizketarako zubiak eraikitzeko elementu zentralizat gure kultura-balioak eta baliabideak kokatzen dituzten harremanen multzoan oinarritzen den jarduera-ildo transbertsal bat osatzen du Kultura Sailak. Estatu handiek sortu eta herrialde eta hiriburu handi gehienetan egoitzak dituzten institutu handien ereduaren aurrean, nazioarteko konexio-eredu berriago baten alde egin nahi du apustua Kultura Sail honek, ezagutarazteko plataforma gisa gaur egun dauden sareak eta baliabideak eta bere kultura-erakundeak erabiliz.

Jarduera-ildo honi ekiteko, Bideragarritasun Plan bat eskatu zuen Kultura Sailak, eta hartan zehaztu ziren Institutuak izan zitezkeen helburuak eta eginkizunak. Plan hori eta honelako kultura instituzioen jarduerari eta filosofiari buruzko beste azterketa bat izan ziren Institutu hau sortzen duen 2007ko Legea prestatzeko funtsezko oinarria.

Etxepare Euskal Institutua gogoeta eta analisi prozesu luze baten emaitza da; 2009an hasi zuen bere ibilbidea; baina ibilbide hori arras bizkortu zen 2010ean, zuzendaria izendatzean, proiektua Legebiltzarrean aurkeztean eta lanari ekitean.

Programak. **Lehen urratsak**

Etxepare Institutuaren gobernu-organismoek eta zuzendaritzak egin dituzten bilerekin gainera, 2010ean Institutu honek etorkizunean izango dituen jarduerak garatzeko oinarriak finkatu dira. Horien artean aipatzekoak dira:

- Lanpostuen Zerrenda (LZ) eta hautaketa-prozesua. 2010ean Lanpostuen Zerrenda argitaratu zen eta Institutuak izango dituen lanpostuetatik 9 betetzeko hautaketa-prozesuetarako deialdiak egin ziren.
- Behin-behineko egoitza prestatzea –Donostiako Prim kalean, 2010eko urrian inauguratu zen ofizialki–, Tabakalera izango duen behin betiko egoitzara aldatu aurretik, eta behar duen ekipamendu teknikoaz hornitzea.
- Txostenak idaztea eta hiru urterako ekintza-plan bat prestatzea.
- Komunikazio Plan bat prestatzea, irudi korporatiboa definitzea eta web orria abian jartzea.
- Plan Estrategikoaren prestatzea-lanak enkargatzea.



- Etxepare Institutua diseinatzea eta aurkezten hastea.
- Espainiako eta Europako beste institutu batzuekin harremanak izaten hastea; horietatik abiatuta elkarlanerako hitzarmenak sinatzen hasi dira.
- Kultura-eragileekiko, elkarteekiko eta kultura-edukien industrien ordezkarietara harremanak eta bilerak..

2.2. Euskararen Sustapena eta Zabalkundea

Testuingurua. **Eginkizunak definitzea**

Institutuak badu Euskararen Sustapenerako eta Zabalkunderako alor bat, helburutzat nazioartean, jendearen artean oro har eta erakunde publikoetan euskararen irakaskuntza, ikerketa, erabilera eta zabalkundea eragiteko ekimenak sustatzea duena. Eginkizun hauek ditu:

- Mundu osoko unibertsitateetan eta bestelako ikastetxeetan euskararen presentzia, ikasketa eta ikaskuntza sustatzea, bereziki unibertsitateetan irakurle-programen sorrera bultzatuz eta euskalarientzako eta atzerriko ikerketa zentroentzako lankidetzak eta laguntza organo gisa funtzionatuz.
- Mundu osoko euskaldun taldeen artean euskararen ikaskuntza bultzatzea, gehienbat euskal etxeen bidez.
- Bere baliabideekin edo beste batzuekiko elkarlanean, euskara kanpoan ikasteko behar diren giza, hizkuntza eta didaktika arloko baliabideak eskuratzea.

- Euskara bigarren hizkuntza gisa irakasteko espezializaturiko langileen prestakuntza bultzatzea.
- Euskarazko ziurtagiriak kanpoan lortzeko probak antolatzea.
- Euskararen presentzia nazioartean sustatzea, hizkuntza zabaltzea xede duten azoka eta erakusketetan parte hartuz.
- Kanpoan gaztelania, katalana eta galegoa sustatu eta zabaltzea xede duten beste erakunde batzuekin euskara sustatzeko jarduerak koordinatzea.
- Bereziki euskararen beste lurraldeetako administrazio publikoekin edo bestelako erakundeekin euskara sustatzeko jarduerak koordinatzea, baldin eta euskara bultzatzea xede badute.
- Euskara normalizatzeko lanean diharduten erakundeekin lankidetzatza harremanak sendotzea.



- Espainiako eta atzerriko unibertsitate eta bestelako erakundeekin, publiko zein pribatu, lankidetzaz hitzarmen eta itunak izenpetzea, euskarak kanpoan duen presentzia eta euskarazko sormena sustatzearen.
- Euskara mundu zabalean sustatzeko ekintzak egiten dituzten erakunde publiko eta pribatuei diru-laguntzak emateko modua kudeatzea.
- Bere ekimenez edo beste batzuekiko elkarlanean, euskara sare telematikoaren bidez eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez kanpoan zabaltzeko ekintzak sustatzea, baita hedabideen bidez ere.

Programak. **Jarduera hasi, irakurle-Programak berriro pentsatzen**

Alor honetan, lehenik eta behin, gaur egun beste sail edo zuzendaritza batzuek bideratzen dituzten eta Institutuaren eskuetara aldatu behar diren proiektuak aztertuz hasi da jarduera.

Proiektu horietako bat, Institutua dagoeneko lanean hasi dena, irakurle-programa da. Izan daitezkeen irakurle-Programak eta unibertsitateekin eta beste erakunde batzuekin izan daitezkeen beste lankidetzaz modu batzuk aztertu eta ebaluatu dira, eta Irakurleen Mapa bat eta Irakurleen Plan bat diseinatu dira.

2010era arte Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Europako eta Ameriketako zenbait unibertsitateekin zituena hitzarmenen bidez funtzionatu du irakurleen Programak. Horri esker 700 ikaslelik gora daude hogeita hiru unibertsitatetan, euskarako eta euskal kulturako ikastaroetan, gutxi gorabehera 300.000 €-ko inbertsio batekin.

Landu den beste alor bat euskara hizkuntzen eta kulturen azoketan presente egoteari dagokiona da; horien artean aipatzekoak dira:

- Expolangues (París).
- Pueblako (Mexiko) Hizkuntza eta kultura aniztasunaren astea: euskara eta euskal kultura gonbidatu ofizialak izan ziren.
- Bremengo hizkuntzen jaialdia.
- London Language Show.
- Expolingua Praga.
- Expolingua Berlin.

Eta, azkenik, 2013rako ospe handiko hiru unibertsitatetan katedra bana jartzeko Plan bat diseinatu da, euskal idazleak, artistak eta unibertsitateko irakasleak aldi baterako egon daitezen, euskararen eta euskal kulturaren zabalkunde egiteko eta beste errealitate batzuekin trukea egiteko.

2.3. Euskal Kulturaren Sustapena eta Zabalkundea

Testuingurua. Euskal Kulturaren kanporako proiektzioa egiteko politika transbertsalak

Euskal kulturaren sustapenak eta zabalkundeak ere badu bere alor berezia Institutuaren barruan, eta musikaren, arte eszenikoen, ikusmenezko arteen, zinemaren, arkitekturaren eta diseinuaren eremuak hartzen ditu. Era honetan definitzen dira alor honen eginkizunak:

- Nazioartean euskal sorkuntza artistikoaren zabalpena egitea, nazioarteko eszenako programetan sarraraziz.
- Artisten eta arte lanen ibiltaritzaz bultzatzea.
- Gaur egungo sorkuntzaren eta arte ondarearen ezagutza zabaltzea.
- Nazioartean kultur erakustaldiak antolatzea.
- Arteen zabalpenerako ekintzabide estrategikoak bultzatzea.
- Euskal sorkuntza nazioarteko eremuetan ezagutzera emateko kultura-eragileei laguntzeko laguntza-Programak diseinatzea.
- Euskarazko literatura, jakintza eta ikerketa kanpoan ezagutzera ematea, gogoeta- eta ikerketa-lanen eta euskara-zko gogoeta eta kultura edukizko aldizkarien bidez kanpoan ezagutzera emanez.
- Euskal kulturaren eta bereziki euskarazko eskaintzaren kanpo zabalpena bultzatzea.
- Euskal pentsalarien eta ikertzaileen eta atzerriko pentsalarien eta ikertzaileen arteko harremanak eta trukeak bultzatzea.
- Hizkuntza eta kultura aniztasunari buruz euskal idazle eta pentsalariak egindako azterketak nazioartean ezagutaraztea.
- Euskal kulturaren zabalpen unibertsala egiten duten erakunde publiko eta pribatuei laguntza ematea.
- Aukerei erantzutea eta haiek kudeatzea.

Alde honetatik, Kulturaren Euskal Institutuak bere gain hartuko ditu Kultura Sailaren beste alor batzuek kudeatzen dituzten programa batzuk, kanpoko sustapeneko politikak koordinatzeko, horretarako politika horien ikuspegi transbertsal bat itsatsiz.

Programak. Oinarriak jartzen

Alor honetan gaur arte izan den jarduera une honetan Kultura Sailean garatzen ari diren Programak aztertzea eta ardurak hartzeko aukerak aztertzea bideratu da. Alde horretatik, gai hauei buruz dauden aukerak definitzen hasi dira:

- Arte eszenikoak kanpoan sustatzea, Eusko Jaur-laritzako Kultura Sailak euskal konpainiak azoketan eta jaialdietan egongo direla ziurtatzeko sinu-tako elkarlanerako programen bidez.
- Euskal zinema eta ikus-entzunezkoak kanpoan sustatzea, Euskadin ekoiztako film laburren zabalakundea egiteko KIMUAK programaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezko sektorea nazioarteko ikus-entzunezkoen ekitaldietan sustatzeko eta zabaltzeko NINIAK programaren bidez batez ere.
- Euskal liburua eta argitalpena kanpoan sustatzea, horretarako munduko hainbat azokatan parte hartuz: Frankfurtoko liburu-azokan; Guadalajarako azokan (Mexiko); LIBER azokan (Bartzelona) eta Madrilgo Liburu Ferian.
- Euskal dantza kanpoan sustatzea, horretarako Miarrizteko Dantzaldian edota edo Ameriketan Euskal Plataforma Eszenikoan parte hartuz.
- Arte plastikoak kanpoan sustatzea, Gure Artea Sarien bitartez eta ferietan parte hartuz.
- Euskal musika kanpoan sustatzea, Eusko Jaur-laritzako Kultura Sailak sektore honetako enprekin batera estatu mailan eta nazioarteko mailan euskal herri-musika (pop, rock, folk, musika berriak...) sustatzeko bultzatzen duen 'Euskadiko Soinuak / Sonidos de Euskadi' programaren bitartez.



MUNDUORO euskaraz
abierto al mundo

Batekoak, bestekoak...
Mundu honetan guztiak gara garrantzitsu.
Handiak, txikiak... guzti-guztiak.
Aniztasunak egiten du mundua aberats.
Koloreek. Hirikuntzek. Kulturek...


Oraín eta gero
Euskarak eta euskal kulturak ere asko
dute esateko.

Abenduaren 30, Euskararen Nazioarteko Eguna
Denok elkarrekin euskararen alde



www.euskaramundiala.net





2.4. Eremu birtuala

Testuingurua. **Kanporako proiektioan teknologia berrien aukerez baliatzea**

Euskararen eta kulturaren sostengu gisa, Institutuaren jardueraren parte handi bat eremu birtualean gauzatuko da, modu transbertsalean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek kanporako proiektioaren eremurako eskaintzen dituzten aukerez baliatuz.

Alde honetatik, kanpoan euskal kulturaren sustapenaren eta zabalkundearen lagungarri gisa, hainbat eratako eduki birtualak garatu nahi dira, hala nola: Euskadiri eta euskal kulturari buruzko informazio orokorra, unean uneko gertaerei buruzko informazioa, ekitaldien egutegia, foroak, gai komunitateak, kultura-ondareari eta kultura-ekoizpenari buruzko direktorioetarako, datu-baseetarako eta edukietarako sarrerak (on line kontsumoa).

Euskararen sustapenari eta zabalkundeari dago-kienez, aukera hauek ari dira aztertzen: on line formazioa eta didaktikako materiala, kontsultarako materiala (hiztegiak, entziklopedia, toponimia, onomastika, terminologia-bankua), euskarara egokitutako softwarea (ofimatikako Programak, ortografia-zuzentzaileak, sistema eragileak, ku-deaketa-softwarea, eta abar), euskarazko ondare bibliografikoa eta dokumentala, euskarari buruzko informazioa eta on line kontsultak.

Programak. **Plataforma digitala abiarazten**

Etxepare Institutuan eremu digitalak zenbateko garrantzia duen garbi ikusten da, web orri bat diseinatzea eta abiaraztea eta gizarte-sare birtualetan (Facebook, Twitter, Flickr, Tuenti, Youtube...) egongo dela ziurtatzea eta horretarako dominioak erostea eta edukiak sartzea izan denez bere lehenengo ekimenetako bat.

Baina web jarduera hori eta horren ondoriozkoak abiarazteaz gainera, Institutuak «Euskara Mundiala» kanpaina egin zuen 2010ean; kanpaina horrek euskara badela ezagutaraztea du helburua; web 2.0an eta sare sozialetan du zentroa, eta horiez baliatzen da Euskadiz kanpo oihartzuna izateko.

3. **Etorkizuneko erronkak**

Etxepare Institutuaren asmoa gure egungo kultura-sorkuntzaren esentzia eta adierazpena munduan zehar zabaltzea eta gizarte moderno, teknifikatu, industrial, sozialki integratu, plural, askotariko eta gehienbat hiritar bezala ikus gaitzaten lortzea da. Eta baita euskara proiektatzea eta sustatzea ere, Euskadik munduaren hizkuntza aniztasunari egiten dion ekarpen gisa eta geure kultura-nortasunaren adierazpen gisa.

Programak hautatzeko prozesua buruturik eta Programak garatzen ari delarik, Etxepare eraikitzen jarraitu beharra dago, beste nortasun kultural batzuen desberdin eta bere estilo bereziaren jabe izango den balio bereizgarri baten moduan.

Institutuaren hasiera-hasierako uneetan bizitzeak esan nahi duen abantaila kontuan hartuta, datozen urteotan euskal kulturaren alderdirik nabarmenenak munduarekin lotzen dituen egitura arinaren moduan finkatzea da erronka nagusietako bat. Alderdi horretatik, datozen urteotarako Plan Estrategiko bat prestatzea eta etorkizunean Tabakaleraren eraikinerako lekuz aldatzea garrantzi handiko mugariak izango dira.

Munduan egoteko helburu hori teknologia berrien aldeko apustu estrategiko baten bidez eta beste instituzio batzuekiko hitzarmenak eta akordioak egitearen bitartez gauzatuko da. Egoitza fisikorik gabe, pertsonak eta pertsonen harreman-sareak izango dira Etxepareren egoitzak. Pertsonak, batez ere artistak, kultura-eragileak eta irakurle-Programak, protagonista bihurtuko dituen harreman-eredu bat sortuko du. Institutua sendotzea lortu arteko lan planifikatu eta progresibo bat.

Laburtzeko, bada, nazioartean ezaugarritzak izango den marka bat sortzeko, euskal sorkuntzak kanpoan oihartzuna izango duela eta hala euskararekiko eta euskal kulturarekiko jakin-mina izango duela ziurtatzeko lanean jarraituko du Institutuak. Euskadiri buruz dagoen irudia euskal kulturaren adierazpenen bidez aldatu eta munduari bere errealitateaz azaldu behar dio, eta munduan zer gertatzen den atzematen jarraitu behar du.